

AURKIBIDEA
KREDITUAK



Proiektuak

[Nola eraman zure ideiak praktikara, inguru-minguruan ibili gabe]

Carlos Paradas / Fernando de la Riva
FUNDACIÓN ESPLAI

© 2000. Carlos Paradas eta Fernando de la Riva
© 2000-2009. Esplai Fundazioa
Argitaratzaileak:



ISBN: 84-9726-552-2

Laguntzaile:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Servicios Sociales

HASIERA

[Aurkibidea]

1] PROIEKTU ONAK EGITEKO

- Zertarako egiten ditugu proiektuak? 4
- Garrantzitsua da nor garen jakitea 5
- Ezinbestekoa da proiektu on bat edukitzea 7
- Proiektu bat burutzeko bideak 9
- Nola aztertu dirulaguntza deialdi bat? 11
- Proiektua argi eta garbi azaldu 13
- Konfiantza sortzeko geure erakundeak aurkeztu 17
- Aurkezpena eta irudia zaindu 18
- Paperak prestatu 20
- Proiektua negoziatu eta defendatu 22
- Diruaren justifikazioa aurreikusi 23
- Ebaluazioaren garrantzia 25
- Memoria on bat prestatu 26
- Proiektuak taldean egin 27

3
or.



2] GURE PROIEKTUAK HOBETZEKO TRUKUAK

- Gure errealitatea zein den jakiteko proiektua 32
- Kontsulta publikoa lehentasunak zehazteko 33
- Ideia lehiaketa 33
- Papelografoa eta proiektuaren mapa 34
- Proiektua gure elkarteak aurkeztu (eta hobetu) 35
- Proiektuak proposa ditzagun, beste elkarte batzuk inplikatu ditzagun 35
- Jakinarazle sarea 36
- Laguntza sarea 36
- Nori eman behar diogu gure proiektuaren berri? 37
- Inor ez engainatu, geure burua ere ez 37
- Emaitzak itzultzeko proiektua 38
- Nola ikusten gaituzten besteak 39

31
or.



3] OINARRIZKO ERREZETAK, LABURPEN GISA

GAIAN SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA

- Bildumako beste izenburu batzuk 45
- Kontraportada 46

41
or.







[Proiektu onak egiteko

Proiektuen gai honek zaila dirudi, eta gizarteko elkarte eta taldeei zer pentsatu ematen die. Proiekturen bat egin behar dugunean, kezkatu eta urduri jartzen gara. Gure iritzi apalean, alde batetik dirudiena baino askoz errazagoa da, baina beste alde batetik, askoz ere zailagoa ere. Baina, hala eta guztiz ere, ez ikaratu.

Koaderno Praktiko honetan haxe lortu nahi dugu:


- Proiektuak egitea erraza izan dadila; eta horretarako, elkarte eta talde horien ekiteko proiektuak aurrera eramaten eta baliabideak bilatzen lagunduko dien tresna sinpleak jarri ditugu euren eskura.
- Behin eta berriz esan, irakurlea konbentzitu arte, proiektuak burutzeko direla, dirulaguntzarik lortu ez arren. Proiektuak burutzeko baliabideak bilatuko ditugu, edo lehendik ditugun baliabideak aprobeztatuko ditugu.

Bigarren zati hau (proiektuak burutzeta, egitea) zailena da, baina garrantzitsuena eta grina handiena sortzen duena ere bada: zerbaiterako batu gara elkarte batean eta orain elkarte horren helburuak

errealitate egingo ditugu, helburuak bete egingo ditugu.

Orduan, gaiaren muinera joan baino lehen, geure burua prestatzea komeni da, gai hau garrantzitsua da-eta: ez dugu bakarrik "proiektu bat nola idatzi behar den" esango; batez ere, ekiteko proiektu batean gure elkartaren helburuak nola zehaztu, eta hori burutzeko baliabideak nola bilatu eta nola antolatu aipatuko dugu.

Beste Koaderno Praktikoetan bezala, ez dago proiektuak egiteko eta baliabideak bilatzeko errezeptarik. Pista praktikoak, aholkuak eta ideia daude koaderno honetan, eta horiek guztiak, oso baliagarriak izan daitezke gure elkarte edo taldearen errealitatera egokitzen baditugu.



Proiektu bat, gure helburua lortzeko egingo dugun bidearen mapa bat bezalako da. Denok bide berari jarraitzeko balio du, zein etapa gainditzen ari garen jakiteko, okerreko bidea hartzen dugunean beste bide bat ekiteko...

[Zertarako egiten ditugu proiektuak?

Erakundeei Proiektuak zertarako egiten dituzten gal-detuko bagenie, askok dirulaguntzak, hau da, dirua lortzeko egiten dituztela erantzungo liguke.

Dena atzekoz aurrera: elkarre batzuk ez dakite zer egin, zein proiektu burutu, zein jarduerari ekin, dirulaguntzaren bat jasotzeko aukera agertu arte. Elkarre horietako helburu nagusia dirulaguntzak lortzea dela dirudi, eta gero, pentsatuko dute zertan gastatu.

Kontua ez da hori. Proiektu bat, batez ere, ekiteko plan bat da. Proiektuak ezinbestekoak dira gure elkarre dituen helburuak lortzeko, aurrera eraman behar ditugun jarduera desberdinak aurreikusi eta zehazteko.

Proiektua gure helburua lortzeko erabiliko dugun bidearen "mapa" bat da. Denok bide horri jarraitzeko eta inor ez galtzeko balio du, gainditzen ditugun etapa zeintzuk diren jakiteko, gu egiten ari garen bidea okerrekoa bada beste bide bat bilatzeko, eta bidearen azkeneraino heldu garelako jakiteko.

Hau da, proiektuak prestatu eta egin egin behar dira, bestela, ez bagenu hori egingo, inprobisazio hutsez

edo zalantzez jokatu genuke, bakoitza alde batetik ibiliko litzateke, frankotiratzaileak bezala, ez norabide ez metodorik gabe.

Eta proiektuak, batez ere, egiteko, aurrera eramateko eta burutzeko prestatzen ditugu.

Proiektuak elkarre "kanpoko" jarduerak zehazteko egin daitezke, eta horien inguruan aritzen gara gehienetan, baina proiektuak gure elkarreko kideen artean kohesioa eta barne antolakuntza hobetzeko ere egin daitezke edo gure irudia hobetzeko eta gizartean eza-gutarazteko eta gainera, kide gehiago eta laguntza gehiago bilatzeko... Hau da, elkarre inguruko puntu GUZTIAK, elkarre bakoitzean landu nahi ditugun helburu eta ekintzak, ekiteko plan batean zehaztuta egon daitezke, edo gehiago oraindik, zehaztuta egon beharko lukete.

Orduan, kontuz!, proiektu bat zerbait egiteko konpromisoa da, paperetan idazten dena egin egin behar da... eta gero, ebaluatu.



[Garrantzitsua da nor garen jakitea

Lehen esan dugu, proiektu bat egitea gure helburuak lortzeko bidea zehaztea dela, orduan, ezer baino lehen, garrantzitsua izango da nor garen jakitea, gure elkarteak zer lortu nahi duen jakitea, eta nora heldu nahi dugun jakitea.

Gure elkartearen helburua argi ez badaukagu eta zertarako sortu den ez badakigu, proiektu horiek ezin izango dituzte gure helburuak lortu. Zein helburu? Ez dakizkigu zeintzuk diren?

Baina, gainera, oso garrantzitsua da nor garen argi izatea, gure elkartearen helburua zein den jakitea, kide guztiok, ideiak argi izanda, gure motibazioa indartu dezagun, gure artean batu gaitezen eta denok batera helburu hori lortzeko lan egin dezagun.

Elkarteko kide guztiak (inplika ditzakegun guztiak) argi izan behar dute eta horrela transmititu behar dute, beharrezkoa ikusten dugunean (gure elkarte-ari egin diezaiokegun publizitaterik onena, geuk ahoz egiten duguna da) zein den gure elkartearen izaera:

• NOR GARA?

Nortzuk osatzen dugu elkarte? zenbat kide aktibo gara? zeintzuk dira gure ezaugarriak? (auzokideak, gazteak, emakumeak, profesionalak, bolondresak, arazo edo beharrianen bat dugunok, eta abar... gara).

• ZER EGITEN DUGU?

Ze jarduera daramagu aurrera edota ze zerbitzu eskaintzen dugu? (salaketa, aholkularitza, informazioa, trebakuntza, zabalkundea, sentsibilizazioa, laguntza zerbitzuak, eta abar...).

• ZERTARAKO EGITEN DUGU?

Zeintzuk dira gure helburu nagusiak?, zer lortu nahi dugu gure lanarekin?, zeintzuk dira gure elkartearen asmoak?

• NORENTZAT EGITEN DUGU?

Norentzat lan egiten dugu?, zein pertsona, talde, elkarte, gizarteko zein talderi dago zuzenduta gure



Garrantzitsua da nor garen argi izatea, gure elkartearen helburua zein den jakitea, kide guztiok, ideiak argi izanda, gure motibazioa indartu dezagun, gure artean batu gaitezen eta denok batera helburu hori lortzeko lan egin dezagun.

lana (gizarte osoa, lurralde zehatz batetako biztanleak, gizarteko sektore edo talde zehatz bat, arazo eta beharriaren bat duen talde bat...)?

Garrantzitsua da galdera hauei taldean erantzuna ematea (elkarteko kide guztiak inplikaturaz), erantzun argia (hitz sinpleekin, denok ulertzeko moduko berbetaz, batez ere gure lana jasoko dutenek) eta laburra (behar diren hitzekin, literatura larregirik gabe).

Eta beharrezkoa da ariketa hori askotan egitea, horrela gure lana errebisatu egingo dugu; errealitatea eta elkarteko kideak aldatzen doaz eta, eta ezin ditugu gure helburuak izoztuta utzi.

Gure lana taldean eraikitzeke eta errebisatzeko teknika batzuk erabil ditzakegu: banan-banan kontsultatzea, galdetegi bidez kontsultatzea, lan saioak eta mintegiak, asanbladak, trebakuntzarako iniziatibak, argitalpenak eta buletinak, parte hartzeko jokoak eta dinamika (ideia jarria, txartel jarria...), kartelak eta iragarki-etaulak, eta abar.

Gure elkartearen eginkizuna bere nortasun agiria bezalakoa da eta egunean egon behar du, gure agiri, deialdi, liburuskak, kartel, informazio txosten eta abarretan isladatuz.

[Ezinbestekoa da proiektu on bat edukitzea

Argi badaukagu nortzuk garen, orain gure helburuak proiektu onetan zehaztu behar ditugu. Proiektu horiek onak ez badira, zergatik eramango ditugu aurrera?

Baina, zer da PROIEKTU ON BAT? Bada, gure uste apalean, gutxienez, 4 irizpide izan behar dira kon-tuan:

- Proiektu bat ona, gizarte talde zehatz baten behar-izan, interes eta egoerarekin zerikusia badu. Talde horiek gazteak, emakumeak, auzokideak, gabeziaren bat duten pertsonak eta abar... izan daitezke.

Talde horien errealitatea zein den jakiteko, elkarteko kideei galdetzen has gaitezke, ia errealitate horren inguruan zer dakiten eta ze iritzi duten, edo euren ustez garrantzia handiena duten arazo eta beharizanak zeintzuk diren esan dezaten. Galde diezaiekegu ere, proiektuaren jasotzaileei, beste elkarrekin batzuetako kideei eta gizarte eragile batzuei (administrazio publikoetako teknikariak), auzokideei, gizarteko liderrei... Egindako azterlan eta ikerketak, prentsako artikulak eta erreportajeak, adituen iritziak, eta abar... kontsulta ditzakegu. Denak balio du inguratzen gai-

tuen errealitate hori gero eta hobeto ezagutzeko eta gure proiektuak inguru horri egokitzeko.

Oso garrantzitsua da gure elkarte eta taldeak beti errealitateari begira egotea burutzen dituzten jardueren guztietan: behatu, galdetu, entzun, jaso...

Errealitatea zein den jakiteak elkarte horien inguruan dauden sektore, talde, lurralde eta abarren arazo, beharizanak eta interesak identifikatzen lagunduko digu. Gure elkarteak ezin denez arazo guztietaz batera aritu, proiektu on bat egin nahi badugu, gure elkarteak duen helburuarekin zerikusi gehien duten beharizanak edo interesak aukeratu behar izango ditu edo batzuei besteei baino lehentasun gehiago eman. Aukeratu dugun beharizanak edo interes hori besteak baino garrantzitsuago izango da eta konponbidea edo erantzuna ere urdurgarria edo garrantzitsuago izango da, horretarako, aurretiaz, jakin dugu errealitatea zein den eta errealitate hori aztertu egin dugu.

- Proiektu bat ona da, beharizanak edo interes horri erantzuteko lehendik ekimen egokirik ez badago edo behar besteko ekimenik ez badago.



Gure proiektuek errealitateari egokitu-ta egon behar dute, ez dute izarretara begira egon behar. Horregatik, ahalegin handia egin behar dugu gure elkarteak aritzen den inguruko errealitateari egokitzeko.

Iniziatiba on bat badago, edo helburu horiek lortzen aritzen den beste elkarte edo erakunderen bat bada- go, ez da ahaleginik edota baliabiderik alferrik gasta- tu behar. Kasu horietan, arazo edo beharrizan horrek zuzenean ukitzen bagaitu, proiektuak egin ditzakegu, baina martxan dauden ekimenak osatzeko edo indartzeko.

Erakunde edo elkarte horiek arazo edo beharrizan horri nola aurre egiten dioten ez bazaigu gustatzen, presio egin behar izango dugu euren lana ondo bete dezaten, eta behar izanez gero, proiektu alternatiboak jarriko ditugu martxan, baina batez ere, indar eta baliabiderik ez alferrik galtzen ahalegindu behar dugu.

- Proiektu bat ona da arazo edo egoera horri ekiteko ideia on bat badaukagu, eta gai izan behar dugu:

Proposamen interesgarri bat egiteko: proposamen hori aurrera eramango dutenentzat, jasoko dute- nentzat eta elkarteko kideentzat interesgarria izan dadila.

Burutzeko modukoa: aurrera eraman daitekeena, dauden eta eskura ditugun bide eta baliabide guztie- kin.

Eragingarria: aztertuko den arazo, beharrizan edo interesari erantzuna ematen zaionean emaitza onak lortzeko balio izango duena.

Gure elkartearen izaerarekin zerikusia duena: gure helburua betetzeko balio izan behar duelako, eta ez erakunde publiko edo beste elkarte batzuen helbu- ruak.

- Proiektu bat ona da, ideiak argi eta garbi baditugu. Idaztea azkenerako utzi behar da, idatzi baino lehen pentsatu, eztabaidatu, zirriborroak eta eskemak egin... behar dira, argi eduki behar dugu zer egin nahi dugun.

Proiektu on bat badugu, eginda dugu bidearen zati handi bat.



[Proiektu bat burutzeko bideak

Proiektu on bat daukagu, baina bideak, baliabideak behar ditugu proiektu hori aurrera eramateko. Non daude baliabide horiek?

- Lehenengo eta behin, izan liteke bide horiek eduki izatea. Elkarte askok lehenik dituzten baliabideekin burutzen dituzte euren proiektuak: kideek borondatez egindako lanaz, bazkideen dirulaguntzaz, normalean erabiltzen dituzten lokal eta ekipamenduez, eta abar... Horiek dira **baliabide propioak**. Argi izan behar dugu gure elkarrekin dituen baliabide propioak zeintzuk diren.

Elkarte askok baliabide propioak lortzeko hainbat ekimen eramaten dituzte aurrera: zozketak, festibalak, erromeriak, azokak, erakusketak eta enkanteak, kamisetak, agendak, liburuak, zerbitzu desberdinak eskaini, eta abar... Zenbat eta gaitasun handiago izan gure elkarrekin dituen baliabide propio horiek sortzeko, hainbat eta handiago izango da gure independentzia eta autonomiaz jokatzeko gaitasuna, ez kanpoko dirulaguntza ez eta ezelako laguntzaren menpe egon gabe. Orain da sormenari eta irudimenari lekua uzteko garaia.

- Beste batzuetan, behar ditugun baliabideak elkarrekin inguruan egongo dira. Horiek **baliabide komunitarioak** dira: erakunde publikoetako edo elizako lokalak... erakunderen batek edo partikularren batek utzitako material eta ekipoak, informazio zentroak, baliabide publiko edo pribatuak, eta abar... Gure inguruan ditugun baliabide komunitarioen zentsu edo mapa antzerako bat egitea komeni da.

- Batzuetan, behar ditugun baliabide horiek elkarrekin arteko elkar lana eta elkar laguntzaren bitartez lortuko ditugu. Elkarte batzuk erabiltzen ez dituzten baliabide propioak dituzte (baliabide teknikoak, materialak, jendea...) eta beste erakunde batzuk horrelakorik ez dutenez, bada, material horien beharrezana dute. Baliabideak lortzeko oso egokia da elkarrekin arteko elkar laguntza. Horiek **elkar banatzen diren baliabideak** dira. Beste elkarrekin harreman ona badugu eta horiekin elkar lanean aritzen bagara, ez da zaila izango ze baliabide, gurekin zein eurenak, elkar banatzea eta gure Proiektuak aurrera eramateko zeintzuk balio izango duten jakitea.



Zenbat eta gaitasun handiago izan gure elkarrekin dituen baliabide propioak sortzeko, hainbat eta handiago izango da gure independentzia, eta autonomiaz jokatzeko gaitasuna. Orain da sormenari eta irudimenari lekua uzteko garaia.

- Enpresa, banku edo aurrezki kutxa batzuk, bai zuzenean edo bai fundazioen bidez, elkarten ekimenak diruz laguntzen dituzte, eta horren ordez elkar-teetako buletin, kartel, esku-orrietan eta antzerako argitalpenetan publizitatea agertzea eskatzen dute. Horiek **baliabide pribatuak** dira. Komeni da jakitea gure inguruan enpresa edo finantza-erakundeetako ze fundazio dagoen.

Beste maila apalago batean, hainbat jarduera aurre-
ra eramateko, gure auzo edo herriko dendari edo
enpresa txikien laguntza jaso dezakegu, bai diruz
laguntzeko edo bai bestelako laguntza emateko
(galtzen diren materialak edo material edo ekipoak
uztea). Elkarte askok, euren finantzatzen dituzte
euren buletinak eta beste jarduera batzuk (jaiak, era-
kusketak, lehiaketak, topaketak...) enpresa txiki
horiek emandako publizitate baliabideei esker, asko-
tan, denda eta enpresa txiki horiek harreman ona
izan nahi dute-eta auzo edo elkarteekin.

- Administrazio publiko, udal, aldundi, autonomi
gobernu, Gobernu zentrala edo nazioz gaindiko era-
kondeek, ere, Europar Batasuna, UNESCO, Europako

Kontseilua, eta abarrek esaterako, elkarten proiektuak diruz laguntzen dituzte, urtero deialdiak eginez edo hitzarmenen bidez. Horiek **baliabide publikoak** dira. Laguntza horiek lortzeko dirulaguntza deialdien berri izan behar dugu edo zuzenean administrazioetako teknikari eta arduradun politikoengana jo behar dugu, gure proiektuak proposatu, eta hala izanez gero, euren laguntza lortzeko.

Koaderno honetan baliabide publikoek arituko gara batik bat. Eta ez bakarrik direlako, ez eta garrantzitsuenak direlako, baizik eta "normalenak" direlako, hau da, normalean erakundeek laguntza hauetara jotzen dutelako.

Baina gizarteko elkarte eta taldeek baliabide propioak sortu behar dituztela uste dugu eta euren iturriak kanpoko baliabideetatik bereiztu behar dituztela, baliabide komunitarioak eta beste elkarteekin elkar banatzen ditugunak topera aprobetxatuz, horrela autonomia gehiago izan dezaten.



Nola aztertu dirulaguntza deialdi bat?

Lehen aipatu dugun bezala, bai baliabide publikoak (udal, aldundi, autonomi gobernu, eta abarrenak) eta bai baliabide pribatuak (fundazio pribatu, aurrezki kutxetako gizarte ekintza, eta abarrenak), baina batez ere, publikoak dirulaguntza deialdien bidez lortzen ditugu.

Deialdi horiek urte hasieran agertzen dira, eta administrazio publikoen kasuan, derrigorrez argitaratu behar dituzte administrazio bakoitzak duen buletin ofizialean (Estatuko Buletin Ofiziala, autonomi erkidego bakoitzaren buletin ofiziala, probintzia bakoitzeko buletin ofiziala, udaletakoa...), eta horiek biblioteka publiko eta erakunde ofizialetan eskura daitezke.

Era berean, beste aukera bat daukagu, urte hasieran dagozkien erakunde ofizialei gutunak idaztea, deialdi horien berri eman diezaguten. Informazio hori jaso ahal izateko administrazioek izaten dituzten Informazio Zentroetara (Herritar, gazte emakumeenganako laguntza bulegoak...) jo edo dei dezakegu. Sarritan, udal, aldundi eta beste sail publiko batzuek informazioa emateko aldizkari edo buletinak argitaratzen dituzte, eta horietan dirulaguntza, sari eta


lehiaketen berri ematen duten atal bereziak egoten dira. Argitalpen horiek eskatzen baditugu, ia kasu gehienetan doan bidaliko dizkigute.

Informazioa lortzeko beste bide bat elkarteen arteko elkar laguntza da. Koordinazio plataformek, federazioek, eta abarrek... lan garrantzitsua bete dezakete plataforma horretara batuta dauden elkarteen artean dirulaguntza deialdiei buruzko informazioa zabaltzen. Kontua denon artean ados jartzea eta lana banatzea da.

Lehenengo eta behin, "helburu eta eremu" buruzko epigrafeak izango ditugu kontuan, batez ere:

- Deialdi bakoitzak zehazten dituen lehentasunak: gizarte sektoreak (gazteak, emakumeak, hirugarren adinekoak, etorkinak, herritarrak orokorrean, eta abar...), laguntzak nori zuzenduta dauden (gabeziaren bat dutenak, langabetuak, lurralde zehatz bateko biztanleak, eta abar...); laguntza publiko horiek zein arazo, beharizan edo eremu tematikorako ateratzen diren, eta abar. Hori guztia puntu batzuetan zehaztuta etorriko da:

DIRULAGUNTZAK



Deialdi guztiek ez dute balio edozein proiekturentzat. Horren ondorioz, aztertu egin behar ditugu, gure proiektura ondoen egokitzen direnak identifikatu eta aukeratu ahal izateko.

Deialdiaren helburua, zein arazo edo beharriaz zuzenduta dagoen eta zein eremutara zabalduko den. Kontuan izan beharko dira ere deialditik kanpo geratuko diren programa edo jarduerak.

Dirulaguntza eskatuko dutenak (irabazasmo gabe-ko erakundeak, kooperatibak, fundazioak, eta abar...), ze baldintza bete behar duten eta nortzuk geratzen diren deialditik kanpo.

Ze informazio aurkeztu behar den: dirulaguntza jasoko dutenak ze dokumentu aurkeztu behar duten, epea, noiz erabakiko den laguntza, eta abar...

Dirulaguntzak emateko irizpideak a) Irizpide orokor-rrak: Nori zuzenduta dagoen, burutu beharreko ekintza motak. b) Irizpide teknikoak: Proiektuaren argitasuna, eragingarritasuna. Era berean, aurkeztu-tako proiektuak ebaluatuko dituen batzordea osatzen dutenak nortzuk diren eta noiz batuko diren ere agertu beharko da.

- Deialdia zenbateko aurrekontuaz hornituta dagoen. Deialdi guztiak ez daude baliabide berberetz hornituta, eta ez daude aurrekontu kopuru bera duten proiektuetara zuzenduta. Horregatik, laguntzen batz bestekoaz jakin behar dugu eta aurreko urteetan emandako "batz besteko dirulaguntzak" kon-

tuan izan behar ditugu, eska dezakegun dirulaguntza kalkulatzeko eta gure proiektura egokitzen den jakiteko. Jakin behar izango dugu ere proiektuaren aurrekontuaren ehuneko zenbat eman diezaguketen dirulaguntza bezala. Portzentajea, gehienetan, aurrekontuaren %50 izaten da, inoiz %75 ere bai; horregatik, beste aukera bat izan daiteke proiektu bera beste erakunde desberdinek kofinantzatzea.

- Eskatu dugun dirulaguntza ematen badigute, ez dezagun ahaztu betebeharrak batzuk hartzen ditugula gure gain: jarduera desberdinak burutzeko jarritako epeak bete, koordinazio batzarretara joan, txostenak, memoriak eta diruaren justifikazioak aurkeztu, programazio aldaketarik egongo balitz horren berri eman, eta abar...

- Azkenik, administrazio edo erakunde bakoitzean dirulaguntza deialdia kudeatzen duen zerbitzu edo saila identifikatu behar dugu (horrela eurekin izango dugun harremana zuzena eta pertsonalizatua izango da).



[Proiektua argi eta garbi azaldu

Idea onak dauzkagu, badakigu zer egin nahi dugun, proiektu on bat daukagu... orain, proiektu hori argi eta garbi azaldu behar dugu, proiektu hori egiten parte hartuko dugunontzat eta laguntza emango digutenei ere azaldu ahal izateko. Azken batean, orain da proiektua idazten hasteko momentua.

Proiektu bat ondo azaltzea 10 galdera erantzutea da:

NORK?

Edozein proiektutan geure elkarte edo taldea aurkeztu behar dugu, proiektua nork aurkezten edo proposatzen duen azaldu. Puntu hau oso garrantzitsua da eta gero ere honetaz arituko gara.

ZERGATIK?

Proiektua hasteko, azaldu egin behar da proiektua zergatik behar den eta ze interes duen, argi eta garbi azaldu behar da zergatik den garrantzitsua proiektua burutzea. Gure proiektua talde zehatz baten zentratuta badago, kolektibo horren ezaugarriak eta egoera azaldu behar izango ditugu. Lurralde zehatz baten auzo, eskualde, herri... baten zentratuta badago, leku horretako ezaugarri nagusiak azaldu behar izango ditugu. Gizarteko arazo, beharizan edo interes

zehatz batez aritzen bada, arazoaren benetako egoera azaldu behar izango dugu.

NORENTZAT?

Proiektuak argi eta garbi azaldu behar du nori zuzenduta dagoen, nortzuk parte hartzen duten edo Proiektuak eskaintzen duen laguntza nortzuentzat den edo norekin egingo den proiektua. Ezaugarri orokorrak (aurreko puntuan ez badugu egin) eta kopurua aipatzea komeni da. Proiektua zehazki nori zuzenduta dagoen esan dezakegu, proiektuak nori ematen dion lehenetsuna eta zeharka -horrela izango balitz- nori zuzenduta dagoen, hau da, proiektua norentzat izango da ona eurekin jarduketa zehatzik egin ez arren (esate baterako: irakasleak trebatzeko programa batean, zeharka ikasleei mesede egingo zaie, kultura desberdinen arteko sentsibilizazio programa eta herritarrak informatzeko programa batean, zeharka etorkinen mesederako izango da, drogazaleei laguntzeko programa batea, zeharka euren familien mesedetan izango da, eta abar...).

ZERTARAKO?

Edozein proiektutan oinarrizkoa da helburuak, hau da, proiektua eginga lortu nahi ditugun emaitza



Oso garrantzitsua: ez ibili kalamatarik edo berbeta nahasi edo ponpoxorik, proiektuari seriotasun gehiago ematen diola pentsatu arren. Hitz sinpleak eta irakurtzen duen edonork ulertzeko modukoak erabili, argi idatzi.

zehatzak argi eta garbi idaztea. Helburuak idazterakoan aditz aktibo eta positiboak erabili behar ditugu (esate baterako, hobetu, gehitu, indartu, erraztu, eta abar...). Ez da helburu larregi jarri behar, proiektuaren neurriaren arabera jarriko ditugu helburuak, baina ez da 3 edo 4 helburu baino gehiago egon behar, proiektua erraz ulertzea nahi badugu. Helburuek ez dute nabarmenak, orokorrak eta abstraktuak izan behar, errealistak, zehatzak eta burutzeko modukoak izan behar dute... helburu horiek lortu ahal izateko eta ebaluatzeko.

ZER?

Edozein proiektutan burutuko ditugun jarduerak aipatuko ditugu. Proiektu handia balitz, jarduera desberdinak multzoka bata bestearen atzetik jarriko genituzke.

Jarduerak argi eta garbi eta labur azaldu behar dira, banan-banan eta bata besteari lotuta, eta dena ulertzeko moduan. Proiektua formazio-jarduera, edo informazio edo zabalkunde jarduerak osatuko balute, aurreikusitako eduki tematikoak aipatu behar izango genituzke.

Proiektua prestatzeko eta ebaluatzeko jarduerak (batzarrak, kontsultak, arazoaren edo errealitatearen analisia, eta abar...) ere sartu behar ditugu, hori sarritan ahaztu egiten da-eta (proiektua bera bakarrik burutuko eta ebaluatuko balitz ere). Dirulaguntza deialdi batzuetan, proiektuen galdetegieta puntu zehatz bat agertzen da ebaluazioa noiz, nola, zein metodo eta teknika bidez burutuko den jakiteko.

ZEREKIN?

Edozein proiektutan aurreikusitako jarduerak aurrera eramateko behar izango ditugun bide edo baliabideak aipatu behar izango ditugu.

Bide horiek, batez ere, giza baliabideak (proiektutik sortzen diren zeregin desberdinak burutzeko behar ditugun pertsonak -bolondresak edo ordainduta-), baliabide materialak (proiektuan aurreikusita dauden ekimenak aurrera eramateko behar izango diren material galkorrak edo inbentariagarriak, ekipamendu eta lokalak, ekipo teknikoa, eta abar...) eta baliabide ekonomikoak (zerbitzu edo laguntza desberdinak ordaintzeko edo ez ditugun materialak erosteko behar dugun dirua) izango dira.



NOREKIN?

Aurreko puntuan giza baliabideei buruzko aipamena egin arren, proiektu batzuetan, handiak edo konplikatua direlako, giza baliabideen inguruko aipamen orokorra egiteaz gain, proiektuan nortzuk parte hartuko duten eta horiek proiektua aurrera eramango dutela bermatuko duen kualifikazio teknikoa (laguntzaileak, bolondresak, profesionalak, teknikariak, koordinatzaileak, eta abar...) zein den zehatz azaldu behar izango da.

Proiektuaren inguruko informazio zehatzagoa emango du horrek, eta horregatik, gure proiektua aztertzen dutenak konfiantza gehiago izango dute gure proposamenetan.

NOIZ?

Edozein proiektu fase desberdinak eta aurreikusitako jarduerak burutzeko egutegia ere sartu behar du. Oso baliagarria izan daiteke "kronograma" bat sartzea.

"Kronograma" bat sarrera bikoitza (jarduerak/datak) duen taula grafiko bat da, eta bakarrik bertan begiratzeko proiektua burutzeko egutegia ikus daiteke.

NON?

Lehenago aipatu dugun bezala, oso garrantzitsua da proiektua burutuko den toki, herrialde edo lurraldearen ezaugarriak adieraztea. Proiektuak hartuko duen eremu geografikoa (auzo bat, hiri bat, eskualdea, probintzia, herrialde bat, eta abar...) ere zehaztu behar dugu. Eta jarduerak burutuko diren toki edo eremu zehatzak (esate baterako: elkartearen gela edo lokala, kale edo plazak, ekipamendu publikoak, kultur etxe edo gazte lekuren baten, hezkuntza zentroak, biblioteca, eta abar..., hoteletako gelak, enpresa pribatuak utzitako ekipamenduak, eta abar...) ere aipatu behar izango ditugu.

ZENBAT?

Edozein proiektu aurrekontua ere sartu behar du. Orain da gure proiektua aurrera eramateko behar ditugun baliabideen kostua baloratzeko momentua. Aurrekontuan hurrengo oinarrizko kontzeptu hauek (gure proiektuan agertzekotan) sartu behar dira -besteak beste-:

Jarduerak burutzeko **material galkorren erosketa**: jarduerak burutzen diren bitartean gastatu edo kontsumituko direnak.

Gure proiektuak inork ez irakurtzeko eta aztertzeko, onena testu luze eta astunak egitea da.

Oso erraza da orriak bete eta bete eta kito!

Baina gure proiektuak haintzat hartzea eta ezagutzera ematea nahi badugu, jo dezagun mamira, eta utz ditzagun testu luze astun horiek beste batetarako.

Testua laburra eta onabada, hainbat eta hobe.

Jarduerak burutzeko **material inbentariagarrien erosketa**: jarduerak burutu eta gero geratuko direnak esate baterako: altzariak, ekipo informatikoak, eta abar...

Beste batzuek emandako zerbitzu edo laguntza ordaintzea: idazkaritza, hizlariak, laguntza teknikariak, eta abar...

Komunikazio gastuak: telefonoa, posta, faxa, posta elektronikoa, mezulariak, eta abar...

Bulegoko materialen erosketa: horiek, kasuen arabera, material galkor edo inbentariagarri bezala sar daitezke.

Proiektua aurrera eramateko behar diren **alokairu edo lokalen mantentze gastuak**.

Jarduera horietatik sortzen diren **bidaia eta joan-etorriak**.

Jarduera horretatik sortutako **alojamendu eta mantenu ordainak**.

Aurrekontuan, proiektua burutzeko elkarteak dituen baliabide propioen aipamena egingo da eta elkarteko kideek borondatez egiten duten lana ere. Aipa daitezke ere beste elkarte edo erakunde batzuek utzitako baliabideak.

Gure deialdia dirulaguntza deialdi publiko batetara aurkezten denean, eskatzen den kopuru zehatza adieraziko dugu eta, gehienetan, proiektu hori burutzeko beste erakunde publikoren bati dirulaguntzarik eskatu diogun ere aipatuko dugu.

Ez dago arau zehatzik idatzita dagoen proiektu batek izan behar duen neurriaren inguruan, baina proiektua ikuspuntu tekniko batetatik zenbat eta konplikatuago izan, burutzeko zenbat eta denbora gehiago behar izan, zenbat eta baliabide eta laguntza gehiago behar izan... hainbat eta zehatzagoak izango dira proiektua eta aurrekontua, datu eta zehaztasun gehiago sartu behar izango ditugu. Bestela esanda, auzoko santua dela-eta jaia bat antolatzeke proiektua laburra eta sinplea izango da, baina drogazale izanak gizarteratzeko proiektu batek, urte bete edo urte bi iraun dezakeenak, askoz ere zehatzagoa izan beharko du.



[Konfiantza sortzeko geure erakundea aurkeztu

Esanda daukagu, gure proiektua ondo azaltzeko beharrianaz hitz egiten genuenean, oso garrantzitsua dela gure elkarte aurkeztea.

Horretarako, deialdian eskatzen diren datu eta dokumentu guztiak aurkezteaz gain, gure erakundea eza-gutzero emateko bestelako jarduera, prentsa dossier, jarduerak bultzatzeko esku-orri... eta abar ere, aurkez dezakegu.

Dossier horiek jaso dezaketena eta jaso behar dutena:

- **Erakundearen aipamena:** zein urtetan sortu zen, oinarriko zeregina eta helburuak, kideak (zenbat diren eta euren ezaugarri orokorrak...), egoitza soziala, telefonoak, faxa, posta elektronikoaren helbidea, Interneteko web orria, kontaktuan norekin jarri, eta abar..., hau da, elkarte identifikatzen duten datu guztiak.
- **Jardueren curriculuma,** egindakoak eta gaur egun egiten ari direnak. Irakurtzen duenari horrek konfiantza emango dio, hor ikusten da benetan espezialitatea dugun eta proiektua, programa, eta abar burutzeko gaitasuna dugun.

- **Fotokopiak, esku-orriak, argazkiak, prentsako albisteak,** eta abar, gure elkarteak gizartean duen eragina ezagutarazteko. Guk, erakunde bezala dugun irudia zaintzeak garrantzia duela nabarmendu behar da, eta horretarako material horiek erabiliko ditugu; baina honen inguruan aurrerago ere hitz egingo dugu.


- **Erakundearen estatutu eta agiri ofizialak.** Horrek ofizialtasuna emango dio gure erakundeari, eta gainera, dirulaguntzaren bat eskatzen dugunean edo hitzarmenen bat proposatzen dugunean eskatu egingo digute.

- **Harreman, laguntza sarea...** Zenbat eta gehiago hobe (beste erakunde batzuekin, harremanak edo hitzarmenak administrazio publikoekin...), hori ere gure elkarteak gizartean duen eraginaren adierazlea izango da eta.

Azkenik, informazio dossier hori bizia duen zerbait da, beraz, etengabe berritzen joan behar da, prentsako azken agerraldiekin, elkar lanean ari garen azken talde edo administrazioen izenak, gure elkarteko curriculumean egindako azken jarduerak aipatuz, eta abar...



Proiektuarekin batera, oso garrantzitsua da ebaluatu behar dutenei eta dirulaguntza emango diguten erabaki behar dutenei gure elkarte edo erakundeari buruzko informazioa ematea. Jakina dezatela nor garen, eta proposatzen duguna aurrera eramateko dugun gaitasuna.



Proiektua ona izan arren, aurkezpena gaizki eta zaindu gabe badago, inpresio txarra eman dezake eta inork ez luke kontuan izango. Baina, proiektu on bat, ondo aurkeztuta, kontuan hartuko da eta irakurlearen interesa sortuko du.

[Aurkezpena eta irudia zaindu

Oso garrantzitsua da gure proiektua proiektu on bat izatea. Baina ez dugu itxura eta aurkezpena ahaztu behar. Proiektua ona izan arren, aurkezpena gaizki eta zaindu gabe badago, inpresio txarra eman dezake eta inork ez luke kontuan izango. Baina, proiektu on bat, ondo aurkeztuta, kontuan hartuko da eta irakurlearen interesa sortuko du.

Horrek gure proiektuarentzat eta gure elkartearen aurkezpenarentzat ere balio du, batik bat gure elkartearen irudia zaindu behar dugulako.

Orain gutxi, gure elkarteentzat oso zaila zen "irudia zaintzea", ez zegoen horretarako baliabide egokirik eta. Baina orain, gauzak aldatu egin dira eta askoz ere errazagoa da gure agiri eta proiektuen irudia zaintzea.

Hemen dituzue pista batzuk, nondik nora jo jakiteko:

- Proiektua eta gure elkartearen aurkezpena idazteko, gure elkarreak -eduki badaukagu-, kideren batek, beste erakunde edo elkarteren batek duen ordenagailuren bat erabiliko dugu.

- Letra handiz egingo dugu (12 edo 13 puntu), margen zabalak, paragrafo laburrak, eta abar... erabiliz, irakurterraza izan dadin, eta ez dadin testu astuna izan, ez dezala letra asko eta bata bestearen gainean eduki.

- Puntu luzeak direnean, leku asko behar badute, "orri jauzia" erabiliko dugu puntu horiek amaitzerakoan, hurrengo puntua orri berean ez hasteko. Dokumentua "zati zuriak" badaude, ez du ardurarik, irakurketa arintzen dute eta bista ez da hainbeste nekatzen. Ez da zati zuri larregirik ere utzi behar (papera alferrik galtzen da eta eduki gutxi dagoela ematen du).

- Betiko testu prozesadoreak aprobeitza ditzagun (Microsoft Word, Word Perfect, etc.), edozein ordenagailuk ditu horrelako programak eta; proiektuaren formatu eta maketazioa zaintzeko: sangriak, izenburuak handiago, letra beltza esaldi garrantzitsuak nabarmentzeko, ideia garrantzitsuak koadroan sartu eta abar...

- Testu osoan letra mota bera erabil dezagun, guretzat politenak direnak (Comic Sans, Arial, Times New Roman, etc.).




- Baliabide teknologiko desberdinak baditugu, aprobetxa ditzagun (etxeko eskanerrak, kolorezko inprimagailuak, eta abar...) eta proiektuan kolore desberdinak, irudiak, argazkiak, grafikoak eta abar sar ditzagun.

- Proiektu zabala bada, eta zati edo atal desberdinak baditu, atal bakoitza bereizteko kolore desberdinetako orriak (kolore argiak hobe, orriak ilunak badira zailtasun gehiago dago irakurtzeko eta) erabil ditzakegu. Paper horiek edozein paper-denda eta kopiategitan daude.

- Lehenengo orria egiterakoan arreta berezia jarriko dugu, hortik jasotzen du irakurleak lehenengo inpresioa eta. Proiektuaren izenburua letra handiz ipiniko dugu (zenbat eta argiago eta erakargarriago hobe), ".....(E)K- AURKEZTUA" (gure erakundearen izena), irudiekin....

- Gure proiektua burutzeko gure elkartetik kanpo laguntza jaso nahi badugu, erakunde pribatu edo dirulaguntza deialdi publikoren batetik esaterako, oso komenigarria izango da proiektua koadernatzea,

edozein kopiategitan ipiniko diguten espiral edo antzerako sistemaren batekin, edo bestela karpeta transparenteren batean gordeko dugu, horiek ere edozein paper-dendatan daude eta.



Guk hemen ematen ditugun pista oinarrizkoak dira, eta denok horien berri izan arren, oso baliagarriak dira, baina egunez egun, egunerokotasunak pista horiek ahaztu erazi egiten dizkigu eta hainbat gauzari ez diegu jaramonik egiten.

[Paperak prestatu

Hemen proposatzen ditugun pista oinarrizkoak direla esan behar dugu; baina denok horien berri izan arren, oso baliagarriak dira, baina egunez egun, egunerokotasunak pista horiek ahaztu erazi egiten dizkigu eta hainbat gauzari ez diegu jaramonik egiten.

Oinarrizko pista horiek hauexek dira:

- Deialdiaren atal batean paperak eskatzen dira, bada, atal hori astiro eta arreta handiz irakurri. "Letra txikian" dagoena ondo irakurri. Aurreko puntuetan aipatu dugun bezala, deialdian proiektuarekin batera aurkeztu behar ditugun paperen zerrenda agertuko da.
- Zalantzarik egonez gero, dagokion Sail teknikora edo administrazioa telefonoz deitu. Hobeto da ondo informatuta egotea erraztea baino, dei bat sasoz egitea, gero gure errakuntza edo ahaztu zaiguna konpontzen saiatzea baino hobe izango da eta.
- Agiriaren kopia bat baino gehiago egin (administrazio guztietara eraman behar dira paper berberak eta).
- Administrazioaren erakunderen baten konpultsa, gehienetan, beste erakunde batetarako ez duela balio kontuan izan.
- Dagokigun erregistroetara -deialdian agertzen dira- jo zuzenean, eta dokumentazioa aurkeztu. Hobe geu joatea postaz bidaltzea baino, horrela gure elkarteari seriotasun gehiago emango diegu eta.
- Administrazio publiko batean aurkezten dugun agiri guztien fotokopia ekarri, erakundearen irteera erregistroarekin zigilatuta.
- Epea zehatz-mehatz bete.
- Paperak ordenatuta gorde denek ezagutzen duten tokiren batean eta ez utzi zeregin administratiboburukratikoak bakarrik pertsona baten eskuetan.

Gehienetan eskatzen dituzten "paperak" hauek dira:

- Eskaera sinatzen duenaren (normalean elkartearen presidentea izaten da) NANaren fotokopia konpultsatua.



- Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen Zerga Identifikazio Kodearen fotokopia konpultsatua.

- Estatutuen fotokopia konpultsatua.

- Dirulaguntza eskatu duena erakundearen legezko ordezkari aukeratu zeneko aktaren fotokopia konpultsatua.

- Elkarteen Erregistroan edo dagokion erregistroan izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiri konpultsatua.

- Erakundearen idazkariak egiten duen agiria, beste erakunde publiko edo pribaturen batek proiektuaren kostu osoaren %100 baino gehiagoko laguntza eman ez diola ziurtatzen duena.

- Gure elkararekin zerikusiren bat duten zerga administrazio guztiek (estatuko Ogasuna, Gizarte Segurantza) egindako agiria, dagozkigun ordainketa guztiak eginda ditugula eta ezer zorrean ez dugula ziurtatzeko.

- Proiektua amaitzerakoan, "Jardueren txostena" aurkezteko esango digute. Baina horretaz aurrerago hitz egingo dugu.

Ikus dezakezueenez, paper nahikoa badago.



Gure helburua hauxe da: gure proiektuan interesa dugula ikusi dezaten; proiektua aztertzen daudenean gure irudia eduki dezaten, jende serioa garela eta proiektu hori aurrera eramateko gaitasuna dugula jakin dezatela.

[Proiektua negoziatu eta defendatu

Esanda daukagu aurreko ataletan, oso garrantzitsua dela gure proiektua aurkeztea, eta hori, dagokion erakundera postaz bidaltzea baino zerbait gehiago da.

Gure iritziz "zerbait gehiago" hori hauxe da:

- Gure eskaeraren jarraipena egin, administrazioan nondik nora dabilen eta nork duen jakin.
- Telefonoz deitu. Ebaluatzeko data, irizpide eta prozedurei buruzko informazioa eskatu.
- Arduradunarekin harremanetan jarri. Informazio gehiago eskaini.
- Proiektua saldu, ez da bakarrik aurkeztu behar, negoziatu eta defendatu ere egin behar da, gure argumentuen artean administrazio zehatz horren (Gazteak, Emakumeak...) erantzukizuna ere aipa dezagun.
- Epea amaitu bazaigu, administrazioarekin akordio-etara heldu hurrengo epeak zabaltzen direnerako.

Azken batean, gure helburua hauxe da: gure proiektuan interesa dugula ikusi dezaten, proiektua aztertzen daudenean gure irudia eduki dezaten, jende serioa garela eta proiektu hori aurrera eramateko gaitasuna dugula jakin dezatela.



[Diruaren justifikazioa aurreikusit

Proiektu bat, gure elkartek dituen baliabide propioekin egiten badugu ere, baina, bereziki, kanpotik datozen baliabideekin, eta batez ere, baliabide publikoekin -denonak dira- egiten badugu, baliabide horien kudeaketa eta administrazioa guztiz gardena izan behar da.

Proiektuen justifikazio ekonomikoa, askotan, iluna eta nahasia da, eta elkarreetara hurbiltzen direnengan edota elkartek ezagutzen dituztenengan mesfidantza sortzen du: aurrekontuak artifizialki loditzen dira, behintzat eskatzen dugun dirulaguntzaren erdia eman diezaguten, eta horrela proiektu osoa egin ahal izateko, proiektu bat burutzeko lortutako baliabideak elkarrearen kide edo mantenu gastuetan erabiltzen dira, dirulaguntzak zerikusirik ez duten faktura eta abarrekin justifikatzen dira.

Elkarte eta taldeei egoera hori gainditzea interesatzen zaie. Kontuak argi eta garbi egin behar dira, inork ikusi ez arren, bakarrik elkarrearen etika edo zintzotasun kontuagatik. Zerbait aldarrikatu, erreklamatu edo salatzeke... kontzientzia garbi izan behar badugu eta elkarrekin argitasunez jokatu behar dute.

Eta kontuak eta kontuen justifikazioa prestatzeari dagokionez, hona hemen pista batzuk:

- Aurrekontua egiten den unean, erraz justifikatzen diren partida eta kontzeptuak sartu behar dira, hau da, ez dadila zailtasunik egon egindako gastuak egiaztatzen dituzten legezko frogagiriak lortzeko (fakturak, erreziboak, eta abar...).
- Komenigarria da proiektuan beharrezkoak diren material hornitzaileekin eta laguntzaileekin akordio- etara heltzea. Dirulaguntza publiko bat lortzen badugu, kontuan izan behar dugu administrazio batzuk emandako dirulaguntzak, deialdian adierazten dena baino askoz beranduago ingesatzen direla, horregatik, sarritan, hornitzaile eta laguntzaileek itxaroen egin behar dute kobratu ahal izateko. Hornitzaile eta laguntzaile horiekin lehen ere lan egin badugu, ez da zaila izango horiekin horrelako konpromisoak hartzea.
- Aukera badago, eta batez ere baliabide handiak behar dituzten proiektuak badira, akordio batera hel gaitzeko gure betiko bankuarekin, jarduerak egin



Proiektu bat, gure baliabide propioekin egiten badugu ere, baina, bereziki, kanpotik datozen baliabideekin, eta batez ere, baliabide publikoekin egiten badugu, baliabide horien kudeaketa eta administrazioa guztiz gardena izan behar da.

baino lehen fondoan zati bat "kontura aurreratu" diezaguten, beti ere, emandako dirulaguntzaren ziur-tapen ofizialarekin. Kasu horietan, banku interesak -bertan aurrekontuan- aurreikusitako behar izango dira. Finantza erakunde batzuk, eurak bultzatutako ekimen baten bidez edo administrazio desberdinekin akordioetara helduz, ezaugarri horietako kreditu bideak dituzte.

- Proiektuarekin zerikusia duten ordainketaren bat egiten dugunean, kontu-agiri originalak eskatu behar ditugu, eta gainera beti BEZarekin; Kontu-agiri horrek gure elkartearen izenean joan behar du eta gure ZIK (Zerga Identifikaziorako Kodea) ere ipini behar dugu, ordainketaren kontzeptua adierazi eta gero hori aurkeztutako aurrekontuan agertzen diren kontzeptuekin bat datorrela zaindu behar dugu.
- Fakturan hornitzailearen datu guztiak agertu behar dira, bere ZIK edo ZIZ (Zerga Identifikaziorako Zenbakia) ere.
- Kontuan izan behar dugu, sarritan, dirulaguntza publikoak bi ordainketetan abonatzen direla: lehe-

nengo, %50 edo %75, eta gainontzekoa, Lehenengo ordainketa justifikatzen dugunean; horregatik kontu handia izan beharko dugu jasotako zatia hainbat arinen justifikatzeko, falta zaiguna kobratu ahal izateko.

- Ordain-agiriak denak batera gorde behar dira horretarako bakarrik izango den karpeta edo artxibagailu batean. Ordain-agiri horiek gero proiektua finantzatzen diguten finantza-erakundeari erakutsi behar izango dizkiogu (edo proiektua gure baliabideekin egingo balitz, gure bazkide edo kideei erakutsi behar izango dizkiegu).
- Proiektua oso handia balitz, kudeaketa ekonomikoa argia izan dadin, proiektuaren diru kontuetarako banku kontu zehatza irekitzea komeni da, horren bitartez egiteko proiektuari dagozkion ordainketa eta diru mugimenduak..

[Ebaluazioaren garrantzia

Proiektuetan ebaluazioa oso garrantzitsua da. Gure proiektuak ez baditugu ebaluatzen, ez dugu inoiz jakingo benetan gure helburuak lortu ditugun, ez dugu jakingo zer egin dugun ondo edo zer txarto, eta horren ondorioz ez gara gure hurrengo ekimenak eta proiektuak hobetzeko moduan egongo.

Azken baten, ez badugu ebaluatzen, gauzak intuizioz egingo ditugu, geuk erabaki bezala.

Horrela bada, gure proiektuak egiterakoan, proiektua ebaluatuko dugun une desberdinak pentsatu eta zehaztu behar ditugu, eta ebaluaziorako ze metodo eta teknika erabiliko dugun ere pentsatu behar izango dugu. Horri proiektuaren **etengabeko ebaluazioa** deituko diogu eta horretarako, proiektua aurrera eramaten ari direnekin batzarrak egingo ditugu, kontsultak -eurekin hitz eginez edo idatziz-, galdetegiak; parte hartzaile edo jasotzaileekin teknika batzuk erabiliz edo joko batzuek eginez, eta hori guztia proiektua aurrera eramaten ari den bitartean aurreikusitako helburuak lortzen ari garen kontrastatu ahal izateko.

Proiektua amaitzerakoan, **azken ebaluazioa** egin behar izango dugu, eta berriro beste kontsulta batzuk egingo ditugu, prozesuan zehar jasotako datu eta informazio guztia aztertuko dugu... hori guztia, azken ondorioak ateratzeko: hasieran aurreikusitako helburuak lortu ditugu?, proiektuak non funtzionatu du ondoen?, non izan dira akatsak?, zer ikasi dugu proiektu hau egiterakoan, gero gure erakundea eta gure ekimenen efikazia hobetzeko?, zein punturaino balio izan digu gure elkartearen helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko?

Proiektua dirulaguntza publiko edo pribatuekin egiten bada, komenigarria da proiektua finantzatzen digun erakundea proiektuaren segimendu eta ebaluazioan inplikatzera (esate baterako: noizean behin informazioa bidali, proiektuaren jarraipena egiteko alde bitariko batzordeak osatu, informazioa emateko batzarrak egin, txostenak egin, eta abar...); hori guztia finantza erakunde horren interesa eta motibazioa bizteko, eta ia aurrerantzean beste proiektu batzuetan laguntzen digun.



Gure proiektuak ez baditugu ebaluatzen, ez dugu inoiz jakingo benetan gure helburuak lortu ditugun, ez dugu jakingo zer egin dugun ondo edo zer txarto, eta horren ondorioz ez gara gure hurrengo ekimenak eta proiektuak hobetzeko moduan egongo.



Gure proiektuen memoria on bat edukitzea gure erakundearen historia eta nortasuna eraikitzen joateko erarik onena izango da, eta gainera, geure burua ezagutzera eman eta beste erakunde edo elkarte batzuegan konfiantza sortuko dugu, horrela aurrerantzean euren laguntza jasotzeko aukera gehiago izango dugu.

[Memoria on bat prestatzea

Sarritan, gure proiektuak finantzatzen dituzten erakunde edo elkarteek, aipatu proiektua amaitzen dugunean, emaitzen berri emango duen txosten bat aurkezteko eskatuko digute.

Batzuetan, inork eskatu ez arren, egokia izango da txosten edo memoria hori egitea, ebaluazioa aprobetxatuz, egindako lana jasota gera dadin. Horrela, aurrerantzean, gure elkartearen beste norbaitek proiektuaren bat egin eta aurrera eraman behar badu, edukiko du nora jo eta nondik ikasi, guk egin ditugun akats berberak berriro gerta ez daitezen, eta lortutako emaitza onak eurak ere izan ditzaten.

Txosten on batek, gutxienez, hurrengo puntu hauek izan behar ditu:

- Hasierako proiektua, zertan oinarritzen den, nori zuzenduta dagoen eta helburuak.
- Proiektuaren zehar egindako jardueraren eta aurrera eramandako ekimenen deskribapena.
- Lortutako emaitzen balorazioa, proposatutako helburuak kontuan izanda. Sarritan, proiektuetan ez dira planteatutako helburu guztiak oso-osorik lortzen, eta hala eta guztiz ere, beste askotan, hasieran

aurreikusi gabeko helburuak edo garrantzi gutxiago ematen zitzaizkien emaitzak lortzen dira.

- Lortutako ondorioak, zer ikasi edo aurkitu dugun, balorazioak, aurrerantzean kontuan izan beharreko planteamenduak, eta abar...
- Esku-orriak, jardueraren programak, albisteak eta prentsa aipamenak, eta abar...
- Beste datu interesgarri batzuk: sarrera eta gastuen aurrekontua, proiektuaren parte hartu dutenen eta lagundu dutenen zerrenda, eta abar...

Txosten honek, proiektuari hitz egiterakoan esan dugun bezala, ez du astuna ez eta oso luzea izan behar (norbaitek irakurtzea nahi badugu), ez ditu datuak eta datuak izan behar. Egindako lana ezagutzera emateko eta baloratzeko oinarritzeko den informazioa jaso behar du bakarrik. Hala eta guztiz ere, txostenaren luzera, proiektuaren garrantzia eta konplexutasunaren arabera izan behar da..

Era berean, gure txostenak aurkezterakoan, irudia, itxura zaindu behar izango dugu, irakurtzen doanarentzat erakargarria eta irakurterraza izan dadin.

[Proiektuak taldean egin

Orain arte, Koaderno honetan, proiektu on bat egiteko eta proiektu hori aurrera eramateko ideia batzuk aurkeztu ditugu.

Baina pista txiki batzuk utzi arren bidean zehar, ez dugu oraindik proiektuak egiteko eta kudeatzeko beste pista garrantzitsu bat aipatu: elkarteko kideak, ahal ditugun guztiak, laguntzaileak, proiektuaren emaitzak jasoko dituztenak eta abar... inplikatzeko duen garrantzia; hau da, proiektuak taldean egiteak -egin eta aurrera eraman- duen garrantzia.


Sarritan, elkarte askotan, bakarrik pertsona batek edo bik lan egiten du proiektuak egiten eta kudeatzen. Gainontzeko kideek ez dute horretan parte hartzen eta dirulaguntza eman eta gero, proiektuan aurreikusitako jardueraren bat egin behar denean orduantxe parte hartzen dute. Horregatik, oso zaila izaten da beste kide batzuk inplikatzeko, proiektua egiterakoan parte hartu ez dutenez, ez dakite proiektua zertan datzan, ez dute ulertzen, ez dute euren denik sentitzen eta beste batzuen proiektuak aurrera eramateko lan eskua dira bakar-bakarrik. Eta jendearen inplikazioa eza justifikatzeko erabiltzen

den argumentuetariko bat hau da: "bakarrik batek edo gutxi batzuek dakite proiektuak egiten". Baina horrek berriro lehengo lekura eramaten gaitu eta beste batzuek ez baditugu inplikatzeko hori ez da inoiz aldatuko.

Gure proiektua egiterakoan zenbat eta lagun gehiago inplikatu askoz hobe, iritzi eta ideia berriak jasoko dituen proiektu hobea egiteko (lau begik, bik baino gehiago ikusten dute, buru bik batek baino gehiago pentsatzen du).

Eta parte hartze hori, hasiera batetik, oso beharrezkoa da elkarteko kide guztiek proiektu hori euren ere badela senti dezaten, eta parte hartzeko motibazioa izan dezaten; horrela, elkartearen barne koherentsia indartuz.

Proiektua prestatzerakoan eta aurrera eramaterakoan kide batzuk, kide asko edo kide guztiak (DENAK ez dute DENETAN parte hartu behar) inplikatu behar dira bai fase baten, fase batzuetan edo proiektu osoan; horretarako, hainbat formula eta teknika erabiliko ditugu.



Gure proiektua egiterakoan zenbat eta lagun gehiago inplikatu askoz hobe, iritzi eta ideia berriak jasoko dituen proiektu hobea egiteko (lau begik, bik baino gehiago ikusten dute, buru bik batek baino gehiago pentsatzen du).

Proiektuak egiterakoan eta kudeatzerakoan elkarteko beste kide batzuk inplikatzeko pistak emango ditugu:

- **Gure proiektua errealitate baten eta egoera edo beharrian baten zentratuko da, eta gure elkarteko kideak errealitate hori ezagutzen eta egoera hori aztertzen inplikatuko ditugu.** Horretarako iriztiak jasoko ditugu, galdetegiak erantzungo dituzte, informazioa jasoko dugu, proiektua jasoko dutenen eskakizunak entzungo ditugu eta beste sektore eta taldeenak ere bai, txosten eta prentsako erreportajeak aztertuko ditugu...

- **Proiekturako baliabideak bilatzen inplikatu.** Baliabide publikoak: buletin ofizialak kontsultatzen, erakunde publikoekin elkarrizketatuz, eta abar; baliabide komunitarioak: erabilera publikoko ekipamendu eta zerbitzuak identifikatuz, beste erakunde eta elkarte batzuekin harremanetan jarriz, eta abar, baliabide pribatuak: proiektuak enpresetan aurkeztuz, inguruko dendarien artean elkar lana eta elkar laguntza bilatuz, eta abar; elkar banatzen diren baliabideak: antzerako elkarrekin lankidetzan ari-zeko harremanak eginez, eta abar...

- **Hasieran proiektuan oinarrizkoak diren puntuak zehazten eta proposatzen inplikatu:** helburuak, jarduerak eta baliabideak, panelen bitartez, kontsulta idatzien bitartez, lan mintegi txikien bitartez, eta abar...; gero puntu horiek kide zehatz batzuek landu ditzakete.

- **Proiektuaren edukia eta irudia errebisatzen inplikatu,** proiektuan erabili den berbeta argitzen, zenbait puntu osatzen edo zehazten, aurkezpena eta irudia hobetzen, eta abar; horretarako, proiektuaren zirriborroa zabalduko dugu kideen artean, lan batzarretan iradokizunen edo aholkuren bat bota dezaten edo bera zirriborroa komenta dezaten.

- **Proiektuaren kudeaketa lanak aurrera eramaten inplikatu:** behar den dokumentazio guztia prestatu, fotokopiak egin, konpultsak kudeatu, dokumentuak aurkeztu eta erregistratu, eta abar...

- **Proiektua zabaltzen inplikatu,** aurkezten eta publikoki ezagutarazten, proiektua jasoko dutenen artean, komunitateko beste sektore batzuetan, eta abar... batzarretan parte hartuz, bata besteari esa-



nez, kartelak jarritz, informazioa ematen duten esku-orriak zabalduz, eta abar...

- **Proiektua burutzen zuzenean inplikatu**, lan talde edo batzordetan parte hartuz, jarduerak eta lan zehatzak egiterakoan ardurak hartuz, lan teknikoak edo laguntza logistikoa emateko lanak aurrera eramanez, esate baterako, materialak erosi eta prestatu, leku desberdinak egokitu, eta abar.
- **Etengabeko ebaluazioa egiten eta proiektua amaitzen inplikatu**, ahoz edo idatziz kontsultak eginuz, proiektuaren segimendu batzarretan eta ebaluazio-behaketa lanetan parte hartuz, jardueretan, parte hartzaile eta proiektuaren jasotzaileen artean iritziak jasotzen, dinamika eta ebaluazio jokoetan parte hartuz, eta abar...
- **Memoria egiten eta zabaltzen inplikatu.**

Azken batean, uste dugu elkarteko kideak ASKOZ GEHIAGO inplikatu behar ditugula proiektuak egiten eta kudeatzen, gaur egun baino gehiago bai behintzat. Eta benetan egingo bagenu, uste dugu gure

proiektuak askoz gehiago hobetuko liratekeela, gure elkartearen helburuak lortzeko askoz ere baliagarriagoak eta efikazagoak izango lirateke.

Eta gainera, benetan egingo bagenu, gure elkarteko kideak proiektuak egiten eta kudeatzen benetan inplikatu bagenitu, askoz ere pozago eta motibazio handiagoz egongo lirateke, batuago egongo lirateke eta gure elkartearen proiektuarekin hartuko luketen konpromisoa sendoagoa izango litzateke. Parte hartzeak parte hartzeko gero eta gogo gehiago dakar eta.





2 [Gure proiektuak hobetzeko trukuak

Proiektu onak egiteko era bakarra, proiektuak egitea eta ebaluatzea da. Egin egin behar ditugu, probatu, praktikatu... Zenbat eta ahalegin gehiago egin -eta batez ere elkarteko kideen artean egiten badugu-, hainbat eta hobeto aterako zaizkigu proiektuak eta gero eta hobeak izango dira.

Badakigu teorian dena erraza dela, baina gero proiektuak praktikan jarri behar dira eta orduan gauzak ez dira pentsatu bezala ateratzen.

Hasieran ere esan dugu: proiektuak egitea eta proiektu horiek aurrera eramateko baliabideak bilatzea, alde batetik, pentsatzen duguna baino errazagoa da, batez ere proiektuak idazteari eta egituratzeari dagokionez. Baina, kontua ez da hain erraza proiektu onak, proiektu interesgarriak, irudimena erabiltzen dutenak eta efikazak egin eta aurrera eraman behar direnean; proiektu horiek jendearen benetako interes eta beharrez erantzun behar die eta baliagarriak izan behar dira; proiektu horiek emaitza onak izan behar dituzte, hau da, pertsona horiek dituzten beharrez eta arazoei konponbidea eman behar die. Hor dago arronka.

Proiektu onak egiteko era bakarra, proiektuak egitea da. EGITEA eta ebaluatzea da. Egin egin behar ditugu, probatu, praktikatu... Zenbat eta ahalegin gehiago egin -eta batez ere elkarteko kideen artean egiten badugu-, hainbat eta hobeto aterako zaizkigu proiektuak eta gero eta hobeak izango dira.

Ikasi nahi dutenentzat, erdipurdiko proiektuak edo gaizki planteatu edo gaizki aurkeztutako proiektuak egin eta konforme geratzen ez direnentzat, hemen daude lagungarri izango zaizkien truku batzuk.

•GURE ERREALITEA ZEIN DEN JAKITEKO PROIEKTUA

Koaderno honetan behin eta berriz esan dugu, proiektu onak egin ahal izateko oinarrikoa dela gure elkarrekin lan egiten duen inguruko errealitatea zein den ondo jakitea, eta gure proiektua jasoko dutenen benetako beharrian eta interesak, konpondu nahi ditugun arazo eta goerak, eta abar... zeintzuk diren jakitea.

Hau ez da beti erraza izaten. Sarritan, ez dugu errealitatearen azterlan eta analisi on bat egiteko baliabide teknikorik, ez giza baliabiderik, ez denborarik. Askotan ez dugu baliabide ekonomikorik arazo horiek aztertzen dituzten enpresa profesional bati lan hori agintzeko.

Zergatik ez proiektu bat egin -Koaderno honetan aipatzen diren pausuei jarraituz-, non helburu nagusia "gure auzoko arazoak, edo gure proiektua jasoko dutenen beharrian nagusiak, edo gure elkarrekin konpondu nahi dituen arazoei konponbidea emateko dauden zailtasunak -eta dauden baliabideak- zeintzuk diren hobeto jakitea den?

Zergatik ez errealitatea zein den jakiten lagunduko diguten jarduera multzo bat planteatu? esate baterako, kontsultak -galdetegi eta elkarrizketa bidez-, eztabaida guneak, dauden azterlan eta ikerlanak jaso eta aztertu, espezialista eta adituen kontsulta eta aholkularitza, errealitate edo arazo zehatz horren argazki edo bideo erreportajeak, kaltetu, senide edo auzokideen testigantzak grabatu, eta abar...

Proiektu honetatik txosten bat egin eta zabaldu daitezke, azterlan edo argitalpen bat atera daitezke, erakusketa grafiko bat egin daitezke, jardunaldiak egin daitezke, eta abar...

Irudimena eta sormena martxan jartzen baditugu, eta helburu horiekin proiektu on bat pentsatzen eta egituratzen badugu, beharbada hainbat gauza lortuko ditugu: gure errealitatea zein den hobeto jakingo dugu, eta horrela gure elkarrekin aurrerantzean egingo dituen jarduketak askoz ere oinarri sendoagoa izango dute; gure proiektua jasoko dutenen interesa eta motibazioa indartuko duen (euren interesak zeintzuk diren galdetuko diegu, kontsulta-



tu, entzun...) proiektu bat aurrera eramango dugu; elkarteko kideen motibazioa indartuko dugu, euren errealitatea eta errealitate horretan lan egiteko arrazoiak hobeto ezagutuko dituzte eta; erakunde publiko edo pribatuetako baliabide ekonomikoak lortuko ditugu -ondo negoziatzen badugu-, erakunde horiek gure proiektu eta proposamenen garrantzia eta seriotasuna argitasunez ikusiko dute eta.

•KONTSULTA PUBLIKOA LEHENTASUNAK ZEHAZTEKO

Demagun gure auzo edo inguruko errealitatea zein den ondo dakigula. Konpondu nahi edo behar den arazo edo beharrezana ez da bakarra izango, arazo edo beharrezana asko izango dira eta gainera konplikatuak. Gure elkarteak, halabeharrez, bere ekiteko proiektuetan landu eta gauzatuko dituen arazo eta beharrezanak aukeratu eta batzuei lehentasuna eman beharko die beste batzuen gainetik. Baina nola egin hori?, ze irizpide erabili? Gure elkarteko kide eta proiektuaren jasotzaileen artean kontsulta

publiko bat egin dezakegu, panelen bidez, iragarki oholen bidez, galdetegi txikien bidez, buletin bidez, eta abar... eurentzat zein arazo den larriena edo garrantzitsuena esan dezaten eta elkarteak proiektu baten bidez zein arazori ekin behar dion esan dezaten.

Galdeketa publiko hori egitea ez da batere zaila, eta gure proiektuak hobeto egiteko arazo garrantzitsuenak edo beharrezan larrienak aukeratzeko balio izango digu; gainera, gure bazkideen eta gure proiektuaren jasotzaileen motibazioa indartu dezake, eta arazo eta beharrezan desberdinak daudela konturatu eta sentsibilizatuko dira. Horrela badakizue: motibazioa landu eta lehentasunak definituko ditugu.

•IDEIA LEHIAKETA

Gure elkarteak beharrezana edo arazo baten inguruan proiektu bat egin nahi badu, zer egin behar du? Nola burutu proiektu berritzaile, original eta irudimentsua?

Zergatik ez gure kideei eta gure proiektuaren jasotzaileei ideiak eskatu?

Egin dezagun ideia lehiaketa bat: txartel zuri batean gure ustez arazo edo helburu zehatz bati dagokionez egin daitekeen eta egin behar den guztia idatziko dugu. Jar ditzagun txartelak zapata kutxa batean. Denbora har dezagun eta elkarteko kide guztiei lehiaketan parte hartzeko gonbita egin diezaiegun. Edozein ideia da ona. Ideia horiek oinarri oinarrizkoak izan arren ere balio du. Denek parte hartzen dute.

Gero, pertsona talde batek (Zuzendaritza Batzordea?), kutxa hutsituko du horretarako ipini den egunean, proposamenak astiro irakurriko dituzte, proposamen interesgarriak aukeratuko dituzte, hainbat txartel laburbildu egingo dituzte jasotako ideiak hobetuz, txarteletatik ateratako ideia berriak egituratu egingo dituzte; ideia originalenak, berritzaileenak, aurrera eraman ahal direnak, elkartearen izaerarekin bat datozenak... aukeratuko dituzte. Eta azkenik, ideia horiek landu egiten ditu, proiektu

itxura ematen die, Koaderno honetako aholkuei jarraituz.

Jarduera horrek ere, elkarteko kideen motibazioa, interesa eta inplikazioa sendotzeko balio du. Zer gehiago nahi dugu!

•PAPELOGRAFOA ETA PROIEKTUAREN MAPA

Gure proiektua pentsatzen ari garenean - taldean -... zergatik ez ditugu gure ideiak papelografo batean (hau da, paper handi bat, gauzak batzekoa, esate baterako) edo errotafolio baten orrietan (gero zeloz horman itsatsita ipintzeko) idazten?

Agertzen diren ideiak edo batzarkideren batek botatako proposamenak idatziko ditugu, errotuladore lodiekin, zuzendu behar dena zuzenduz.

Truku honekin, proiektua egiten parte hartzen duten guztiek proiektu hori nola loditu eta burutzen den ikusiko dute. Proiektuaren mapa antzeko bat izango



dugu, eta gero, horrekin, askoz ere errazagoa izango da azken dokumentua idaztea.

•PROIEKTUA GURE ELKARTEAN AURKEZTU (ETA HOBETU)

Proiektuaren zirriborroa daukagu, eta hori egiteko talde txiki edo handietan lan egin dugu. Zergatik ez dugu fotokopia piloa egiten eta zergatik ez ditugu kide guztiak batzar batera deitzen proiektua hobetzeko parte har dezaten?

Zirriborroan agertzen diren oinarrizko ideiak labur aurkeztuko ditugu; gero, edukiari (jardueren eragingarritasuna hobetzeko, aurreikusitako baliabideak hobeto aprobeztatzeko, jarduerak egiterakoan ahalik eta jende gehien inplikatzeko, eta abar...) edo formari buruzko aportazio guztiak (aurkezpena hobetzeko, puntu nahasiren bat argitzeko, interesgarria izan daitekeen informazioa sartzeko, eta abar...) jasoko ditugu, eta azkenik proiektuaren kudeaketa estrategia hobetzeko aportazioak ere jasoko ditugu.

•PROIEKTUAK PROPOSA DITZAGUN, BESTE ELKARTE BATZUK INPLIKA DITZAGUN

Proiektu bat egitea erraza eta zaila ere bada, baina errazagoa da proiektu horiek antzerako helburuak dituzten erakundeetako (gai berberen inguruan lan egiten dutenak) edo gure helburuekin lotuta dauden beste gai batzuetaz aritzen diren erakundeetako (gure helburuekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gaien inguruan lan egiten dutenak) kideekin edo lurralde berean lan egiten duten elkarteekin egitea.

Indarrak batzen baditugu, proiektu on bat egiteko ideia gehiago izango dugu eta elkarteen arteko lan-kidetzaz ikasiko dugu eta gainera elkarrekin egindako proiektu hori handiago izango da.

Bestalde, elkarte gehiagoren artean egindako eta aurkeztutako proiektu batek erakunde publiko edo pribaturen baten dirulaguntza jasotzeko aukera

gehiago izango du. Horrela bada, proposa eta egin ditzagun proiektuak hurbileko beste erakunde batzuekin.

• JAKINARAZLE SAREA

Sarritan, askorentzat oso zaila egiten da denbora dela eta elkartean aktiboki parte hartzea, esate baterako, proiektuak egiten. Baina badaude beste lan batzuk ere, hau da, elkarteei laguntza eman diezaiekegu ahalegin handirik egin gabe.

Esate baterako: bila ditzagun administrazio publikoetako Sail desberdinetan lan egiten duten bolondresak. Horien lana gure elkartean gu informatzea izan daiteke, esate baterako, dirulaguntza deialdien berri eman, edo proiektuak egin eta ku-deatzerakotan papeleoa egiten lagundu. Laguntzaile horiek ez dute elkartean aktiboki parte hartuko, eta bakarrik elkartearentzat eta horrek prestatzen dituen ekiteko proiektuentzat behar beharrezkoak direnean eta

euren lanpostutik proiektu hori aurrera eramateko erraztasunak eman ditzaketenean agertuko dira.

Idea hori lantzen badugu, jakinarazle sare bat sortuko dugu, dauden baliabideen iturriei buruzko informazioa emango digutenak.

• LAGUNTZA SAREA

Elkarte askok, jarduera zehatz bat antolatu eta egin behar duenean, euren auzoko, lurraldeko, hiriko hainbat dendari eta enpresari txikiri (edo handiri) laguntza eskatzen die; jarduera hori buletin bat, jai bat, irtenaldi bat... egitea izan daiteke. Eta horrela gabiltza, jardueraren bat egin behar dugunean, behin eta berriz eurengana jotzen.

Zergatik ez gara laguntzaile horiekin akordioetara heltzen, harreman egonkor bat mantentzeko? Horiek gure jarduerak aurrera eramaten lagunduko digute eta guk publizitatea egingo diegu beti, gure buletin, esku-orri, programa eta abarren bitartez. Euren laguntza proiektuetako dokumentuetan ere jasota



gera daiteke, esate baterako baliabideak edo aurrekontua aipatzen ditugunean, erakunde laguntzailatzat agertuz. Gainera dendari edo enpresari txiki horiek laguntzaile gehiago lor diezagukete, kontsumo kooperatibak, partzuergoak, eta abar... Gure jardueren publizitatea egin dezakete euren denda eta lan lekuetan. Proiekturen batentzat dirua edo lortu behar denean, dendari eta enpresari txiki horiek euren denda edo lan lekuetan "laguntza buzoiak" jarriz lagun diezagukete.

•NORI EMAN BEHAR DIOGU PROIEKTUAREN BERRI?

Proiektua eta jarduerak (gutxi gora-behera) aurreikusi ditugun bezala doaz aurrera. Nori eman behar diogu horren berri?

Aurren, gure elkarteko kideei, gure buletin, iragarki ohol, informazioa emateko gutun, eta abarren bidez.

Gero, gure proiektuaren jasotzaileei, eta horretarako proiektuan aurreikusten diren komunikazio eta infor-

mazio bideak erabiliko ditugu: batzarrak, informazioa emateko asanbladak, txosten edo memoriak, eta abar...

Finantza erakundeei, eman diguten diruarekin zer egiten ari garen jakin dezaten, aldizka aterako diren txostenen bidez edo jarraipen batzarren bidez, eta abar.... Horrela, euren motibazioa gehitu egingo da, eta aurrerantzean ere laguntzeko prest egongo dira.

Komunikabideei, prentsa ohar edo txosten laburren bidez. Gure elkarte eta gure jardueren berri izan dezaten, eta gure baliabideekin helduko ez ginatekeen lekuetara informazioa zabal dezaten.

Trukua: oso garrantzitsua da gure proiektuen informazio-politika zaintzea.

•INOR EZ ENGAINATU, GEURE BURUA ERE EZ

Gure proiektuak ebaluatzen ditugunean, eta batez ere, ebaluazio hori finantza erakunderen bati proiektu-



tuaren berri emateko egin behar denean, puntu positiboak, eta emaitzarik onenak nabarmentzen ditugu eta alderantziz, hain onak ez direnak ez ditugu aipatzen edo disimulatu egiten ditugu.

Egia osoa ez dugu esaten aurrerantzean dirulaguntzak jasotzeko aukera arriskuan ikusten dugulako. Baina, sarritan, geuk ere sinetsi egiten dugu informazio "ofizial" hori eta geure burua goraiatzeko dugu, gaizki atera dena ahaztuz.

Gure proiektuak ebaluatzen ditugunean, oso garrantzitsua da geure burua ez engainatzea. Erraza eta era berean zaila.

•EMAITZAK ITZULTZEKO PROIEKTUA

Lehen gure inguruko errealitatea zein den jakiteko proiektu bat egitea proposatu dugu, eta gauza bera proposatzen dugu gure proiektuen emaitzekin.

Horrela bada, gure proiektua sektore zehatz batekin edo lurralde zehatz batetako biztanleekin

aurrera eramaten badugu, gure betebeharra da - etika kontuagatik- proiektu horrekin lortutako emaitzak bakarrik guretzat ez gordetzea; informazioa bueltatu egin behar zaio, zer gertatu den kontatu behar zaio, ikasi dugunaren berri eman behar diogu... komunitate osoari, baina batez ere, proiektua egiten lagundu zutenei eta proiektuaren jasotzaileei.

Adibide bat: drogazale izanak gizarteratzeko proiektua egiten badugu, drogazale izandakoei, euren familiei eta komunitateari eman behar izango diegu lortutako emaitzen berri.

Zergatik ez dugu emaitzekin beste proiektu bat egiten? Zergatik ez jaso eta kudeatu proiektu baten txosten, dokumentu, material, argitalpen, eta abarren elaborazioa; zergatik ez jaso eta kudeatu proiektu baten informazioa emateko jardura edo erakusketen antolaketa, edo emaitzak zabaltzeko eta ezagutzera emateko jardueren antolaketa edo proiektuetatik sortutako formazio jardueren antolaketa? Ez da gure proiektuei jarraipena emateko



neurri egokia eta hasi eta, urak sua amatatzen duen moduan, ia arrastorik utzi gabe amaitzen diren proiektuak egiteari uzteko neurri arrakastatsua?

•NOLA IKUSTEN GAITUZTE BESTE- TEEK?

Guk, gure elkartean, argi eta garbi daukagu: badakigu nor garen, zein den gure zeregina, zer egin nahi dugun, besteei zer eman behar diegun.

Baina... gurekin lan egiten duten pertsona eta sektoreek ere argi daukate? Nola ikusten gaituzte besteek? Besteen ustez zein da gure zeregina, zeintzuk dira gure oinarrizko helburuak? Ze lan uste dute egiten dugula?

Zergatik ez dugu kontsulta bat egiten gutaz pentsatzen dutena jakin dezagun? Hainbat eta hainbat bide erabil dezakegu: buletinak, iragarki oholak, inkestak kalean, elkarrizketak laguntzaile eta elkar-tearen lagunei, eta abar...

Horrek guztiak gure zeregina berrindartzeko, berriz azaltzeko edo berritzeko balio izango digu. Eta ez dago gaizki, ezta?





3 [Oinarritzko errezetak, Laburpen gisa

Guk zeregin bat daukagu, hau da, gure helburuak bete behar ditugu, ideiak ekiteko proiektu batean bihurtu behar ditugu.

Koaderno hau harira doa eta ez da oso lodia, baina hala eta guztiz ere, informazio asko dago eta bukatzera goazenez, proiektu bat egiterakoan kontuan izan behar ditugun ideia nagusiak laburbilduta gogoraraztea komeni zaigu:

Orain elkarte eta talde bakoitzak lan egin behar du, ideiak horiek guztiak euren errealitatera egokitu behar dituzte eta. Elkarte edo talde bakoitzak errealitate bat eta estilo bat duelako, bakoitzak bere zereginaren arabera estiloa.

Ez dezagun ahaztu: guk zeregin bat daukagu, hau da, gure helburuak bete behar ditugu, ideiak ekiteko proiektu batean bihurtu behar ditugu; ez dugu ahaztu behar zergatik sortu zen gure erakundea eta zergatik irauten duen.

- **Proiektua ez egin bakarrik baliabideak lortzeko**, alderantziz, baliabideak bilatu gure proiektuak aurrera eraman ahal izateko.

- **Argi eta garbi eduki gure elkarteak duen zeregina**, izaera, zergatik dagoen... gure proiektuek gure helburu nagusiak lortzeko balio dezaten.

- **Idea on bat eta proiektu on bat izan**. Proiektu hori jasotzaileen beharrez eta interes zehatzei konponbidea emateko gai izango da, ez dugu ahaleginik alferrik egingo. Proiektua ditugun baliabideekin egiteko modukoa izango da, efikaza izango da eta emaitza zehatzak emango ditu eta, bukatzeko, gure elkartearen zereginarekin lotuta egongo da.



- **Gure inguruan ditugun baliabideak zeintzuk diren jakin:** elkartearen baliabideak, komunitatearen baliabideak, beste elkarte batzuekin elkar banatu daitezken baliabideak, baliabide publikoak eta pribatuak. Sarritan ez dugu dirulaguntzarik behar.
- **Gure proiektuarentzat egokienak diren laguntza deialdiak aztertu eta aukeratu.** Erakunde publiko edo pribatuetara zuzenean jo, izan badaiteke, hitzarmen bat proposatzeko.
- **Proiektua idatziz azaldu, argi eta garbi:** proiektua egiteko beharrezko dagoela, helburuak, nori zuzenduta dagoen, ze jardura eramango dugun aurrera, erabiliko ditugun bide eta baliabide desberdinak, proiektuaren fase eta epeak, non burutuko den, ze aurrekontu izango duen...
- **Zuen erakundea aurkeztu,** informazio dossier bat bidalia proiektuarekin batera, ebaluatuko dutenei gure aipamena egin, eta proiektua aurrera eramateko gai garelako erakutsi.
- **Proiektuaren aurkezpena eta irudia zaindu,** ordenagailuz egindako maketazio on bat eta letra

polita erabili, ahal denean irudia eta grafikoak sartu, koloretako paperak erabili, eta bistara polito ematen duen karpeta edo koadernaketa baten eraman.

- **Deialdian eskatu dizkiguten paper guztiak prestatu:** fotokopia konpultsatuak, ziurtagiriak, zinpeko aitortpenak, eta abar... , ezer ahaztu gabe (letra txikia irakurri). Dagozkien erregistroetan -eta epetan- aurkeztu. Kopia zigitatua eskatu. Zeuk gorde paper guztiak.

- **Administrazio pausuen jarraipena egin,** gure proiektua edozein unetan non dagoen jakin behar dugu, eta gure proiektua, onartu edo ez onartu, nor erabakiko duen ere jakitea guztiz komenigarria da. Telefonoz dei egin, ardura zaigula erakutsi, informazio zabalagoa eskaini. Proiektua defendatu behar dugu. Ezagut gaitzatela, erabaki behar dutenean gutaz gogora daitezela.

- **Aurrekontua prestatzerakoan dirulaguntzaren justifikazioa prestatu,** justifikatzeko errazak diren partida edo kontzeptuak sartu, faktura originalak sartu beti, BEZa eta hornitzailearen ZIKz, eta gure



elkartean datu guztiakin. Frogagiri guztiak batera eta leku seguruan gorde.

- **Proiektua ebaluatu, aurrera eramaten ari den bitartean eta amaieran**, ondo egindako eta gaizki egindakoetatik ikasteko, aurrerantzean gure proiektuak hobetzeko, eta parte hartzaile eta proiektuaren jasotzaileak ere parte hartu dezaten. Ebaluazioan, izan badaiteke, finantza erakundea ere sartu (txostenak, memoriak, segimendu batzordeak...), bere motibazioa indartzeko.

- **Bukatzean memoria onak egin**: aurrerantzean gure elkartean proiektuak egingo dituztenentzat balio izango die, lagundu zutenei proiektuaren interesa azaltzeko aukera emango du, gure seriotasuna erakutsiko du eta beste laguntza batzuk lortzeko konfiantza sortuko du...

- **Proiektuak taldean egin**, gure elkarteko kideak inplikatu ahal den guztian: errealitatea aztertzen, helburuak lortzen, proiektua idazten eta aurkezten, baliabideak bilatzen, paperak prestatzen eta kudeatzen, proiektua jasotzaileen artean zabaltzen, emaitzak ebaluatzen, Memoria egiten...

Bi buruk batek baino hobeto pentsatzen du eta proiektuak egiten eta kudeatzen ikasteko EGIN EGIN BEHAR DIRA.



[GAIAN SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA

•Cembranos, F.; Montesinos David, H.; Bustelo, María: La Animación Sociocultural: una propuesta metodológica, Editorial Popular, Madrid, 1988.

•De la Riva, Fernando; Colectivo de Dinamizadores Juveniles de Córdoba: Herramientas para el Trabajo del Informador y Dinamizador Juvenil, EDEX - Instituto Andaluz de la Juventud, Bilbao, 1998.

•Equipo Claves: Aprendiendo a Organizar nuestra Asociación, Editorial Popular, Madrid, 1994.

•Equipo Claves: Gestión Participativa de las Asociaciones, Editorial Popular, Madrid, 1994.

•Tschorne, Patricia; C. Más, J.L. Regojo.: Guía para la Gestión de las Asociaciones, Editorial Popular, Madrid, 1990.

BILDUMA HONETAKO BESTE IZENBURU BATZUK

1. alea: Batzarrak

Nola amaitu behin betiko batzar gogaikarriekin.
Fernando de la Riva, Pablo Solo de Zaldivar.
CRAC. 1999.

2. alea: Proiektuak

Nola eraman zure ideiak praktikara,
inguru-minguruan ibili gabe.
Carlos Paradas, Fernando de la Riva.
CRAC. 2000.


3. alea: Taldeak

Nola lan egin elkarrekin, errietan hasi gabe.
Cristina Bustos, Antonio Moreno.
CRAC. 2000.

PRESTATZEN:

4. alea: Marketing Elkartentzat

Nola egin interesa sortuko duten jarduerak eta gai-
nera abileziak kontatu.
Antonio Martínez, Nuria Ramírez.
CRAC. 2000.



Koaderno Praktikoak, material erraz, baliagarri eta erabilgarri sorta dira. Hauek, elkarte eta gizarte-taldeetako bizitzaren zenbait gai eta alde zehatzetan oinarriturik daude eta beren erakunde-aribidea eta gizarte-jarduera hobetzen laguntzeko baliabide bezala eginak izan dira.

Koaderno Praktiko hau, **Proiektuei** buruzkoa da. Hauek bideratzeko baliabideak bilatuz eta eratzeko lagungarri diren jarraitibideak eskainiz, haietan parte hartzen dutenentzat, proiektuak eragingarriago eta gogobetekoago egiten ditu koaderno honek.